


ATENAS

ERASMUS

Atenas hiria historiaz beterik dago. Bai akropolisa, tenploak, etab. Mitologia, historia, arteak, etab. gustatzen bajatzuz hau da zure helmuga. Hiria puntu historikoz beterik dago antzinako grekoen aztarnak daude hiri osotik. Oso interesgarria da zein haien eginkizunak historiaren bidea markatu dute momentu baten. Haien alfabetoa nire ustez ederra irudi zitzaidan. Haiek soilik hizkatzea hizkuntza hori oso antzinatik liluragarria da.



Kultura oso mediterranea da eta temperatura aldetik nabaritu egiten da. Hori izan zan gehien gustatu zitzaidan gauza. Azaroan oraindik aukera duzu hondartzetara joateko edota greziar irlalara. Haiek bai irlak! Hondartz eta paisai izugarriak ezagutu genduzan Atenasetik itsaso Egeoa nabigatu genuenean (Santorini, Mykonos, Paros...). Gainera unibertsitate txartelarekin %50-eko deskontuak egoten ziran ferry-tan.



Baina gauza denak moduan dena ez da hain polita. Atenas hiriaren zonalde turistikoa bai polita, ordenatua, garbia da. Aldiz, hiria oso kaotikoa zan. Trafiko ugari, etxeak eta bestelako infraestruturaz asko erdi apurtuta, pobrezia asko (erdialdeko plazetan jende ugari etxe gabe), protesta gogorak sarritan, etab. Bai bizitza gogorra sumatzen dela hiri bertan eta ez irlen moduan. Momentu horietan konturatzen gara ze suerte daukagun hemen jaio garela. Krisia hor oso gogor jo zuen eta oraindik aztarnak gelditzen dira. Honekin batera jendea oso

zabalak dira, oso atseginak eta beti laguntzeko prest. Kanpotarrekin oso ondo konpontzen dira eta hori bai eskertzen dela. Oso zoro daude baina orokorrean pertsona onak ziran.

Unibertsitate aldetik ez ziran batere gogorrak gurekin. Ia ez geneukan klaserik, bakarrik korreoz bidaltzen zizkiguten lanak egiten genduan eta noizbait azterketa errazen bat. Unibertsitatea sumatzen zan gure karreretarako ez zegoela prestatuta kanpotarrak jasotzeko. Unibertsitate aldetik bai nuen aisialdi asko grezia eta beste leku batzuk ezagutzeko, lagunekin denbora oso onak igarotzeko, baina akademikoki ez nuen batere ikasi. Aldiz pertsonalki nire burua ontzat aldatu da joan nintzenetik.

Igor Arrese Zuricaray